

UDALSAREARI LAGUNTZA EKINTZA JASANGARRIA, 2030 AGENDA, ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA BULTZATZEKO

Posted on 20/03/2024 by Naider

[Udalsarea 2030](#) udalerri jasangarrien euskal sarea da, eta tokiko jasangarritasuna sustatzea eta Euskadiko administrazio publikoaren maila guztien arteko koordinazioa sustatzea du helburu – Eusko Jaurlaritza, erakunde publikoak, foru-aldundiak eta eskualdeetako eta udalerrietako erakundeak –, eta horiek protagonismo berezia hartzen dute. Nabarmenki, huraosatzen duten toki-erakundeen jasangarritasuneko politikak eta ekintza-planak dinamizatzeaz arduratzen da, betiere Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lerrokatuta.

Ihobek, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Udalsarea 2030en idazkaritza teknikoaren ardura du 2002. urtean udalerri jasangarrien euskal sarea sortu zenetik. Tokiko eta udalaz gaindiko erakundeei jasangarritasuneko politikak eta ekintza-planak dinamizatzen laguntzeko Ihobek duen beste tresna nagusietako bat Euskadiko 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa da (CCPV 2030).

Ihobek Naidarren laguntza zerbitzua du Udalsarea 2030en eta CCPV 2030en idazkaritza teknikoan. Zeregin hori betetzeko, Naiderek Batzorde Teknikoa eta tokiko ekintza jasangarria koordinatzeko eta bultzatzeko Batzordea dinamizatzen laguntzen du, biak ere sarea kudeatzeko organoak, bai eta Udalsarea 2030en plan estrategikoaren (2022-2025) eta kudeaketa-planaren (2022-2023) koordinazioa eta jarraipena egiten ere. Ihoberekin batera, sareko 2025 Plan Estrategikoaren esparruan zuzentzen dituen ekintzak gauzatu dira, eta Euskadiko udalerri eta eskualdeen artean CCPV 2023-2030 Programa bultzatzeko laguntza eman da.

